

BAKOITIA, BIKOITIA

Iñigo Martínez Paz

Gasteiz

Eta bihar, zer?

Bihar da eguna. Historiako egun garrantzitsue-
na. Gizartearen jarraikortasuna bermatuko duen
eguna. Bihar da Azken Irtenbidea.

Badira urteak non mundua ez den bideragarria;
non planetan milioika lagun dauden soberan; non
Lurra ustiatzen amaitu dugun; non etorkizunik ez
dagoen.

Baina, nork erabakiko du nor dagoen soberan
eta nork bizia merezi duen? Zer egin, ordea, sobe-
ran daudenekin?

Galdera horien erantzuna dugu Azken Irtenbidea.

2084eko otsailaren 15a da gaur. Krisiak gero eta
gogorrago jotzen du, denborak aurrera egin ahala.
Ez dago guztiontzako adina gauza. Ezin ditugu
gizaki guztien beharrak asetu.

Kaos munduan bizi naiz ni. Hainbeste lagun iza-
nik, legeak ez du baliorik, gainpopulazioan ia ezi-
nezkoa da inori ezer leporatu eta frogatzea. Bihar
arte.

Nortasun agiria begiratzen dut noizbehinka:
678G673Z935R724T801P288.

Bikoitia da.

Baserri bateko behizat jotzen nau zenbaki horrek. Horixe sentiarazten nau zenbaki horrek; zenbaketa egiten dute.

Arraioa!

Zer gertatuko da bihar? Eta beren burua entregatzen ez dutenekin, zer?

Zer da hobea? Bakoitia ala bikoitia?

Zu bizi ala besteak bizi?

Dena dela, berekoia da erantzuna. Norbera bizitzea erabakitzen baduzu, besteei aukerak kentzen ari zara. Besteok bizitzea erabakitzen baduzu, eurengan jartzen zabilta ez daudenen galeraren mina jasateko karga. Joan direnengatik tristurarik sentitzen ez duen psikopata izan ezean, bi aukerak dira txarrak. Bata zein bestea, txarrak biak.

Baina ez dago aukera onik. Aukera hoberik ez, behinik behin. Azken Irtenbideak «Irtenbide Bakarra» edo «Irtenbidea» izan beharko luke. Erdien Genozidioa egokiagoa da, baina ez dut uste horrela esango diotenik.

Zer axola dio izenak?

Arraioa!

Eta orain zer? Lasaia izan naiz beti ni. Gauzak patxadaz hartu ohi ditut. Baita bihar hilko banintz ere, lasai biziko nuke neure azken eguna.

Familia, lagunak... agurtu, eta kito!

Zer arraio da azken momentuan gauzak egin behar hori?! Ez baduzu zerbait biziraun duzun

bitartean egin, zergatik egin azken momentuan? “Ez duk ia denborarik gozatzeko izango, motel!”. Lehenago egin ez duzuna egiteak, ezer gutxirako balioko dizu orain.

Baina tira, bakoitza berearekin. Eta batzuenak zoroena dirudi. Kaletik denetarik ikusia dut gaur. Ni patxadaz eta beste batzuk...

Badira momentu txarra pasatzen ari direnak ere. Egoerak gaintituta daudenak. Aukera txarrena da hori. Baina zaila izan liteke patxadaz ibiltzea kaos-ean.

Agian ni potrohandia naiz.

Baina tira, berdin zait hori. Bakoitza bizi dadila nahi duen moduan, besteak bakean uzten dituen bitartean.

Nik, pentsatzen emango dut arratsaldea. Eta gero ohera botako naiz. Eta bihar, biharkoa.

Hala ere, batzuetan norbere pentsamenduak dira kartzelarik okerrena. Bertan sartu eta ezin alde egin. Giltzapeturik geratzen da norbera norberaren buruaren barruan, eta ez dago ihesbiderik.

Garrantzia unearen araberakoa da horrelako egoeretan. Batzuetan norbere bizitzako garrantzitsuena da —eta, ze ostia, bada ere!— eta besteetan, ez du garrantzirik: izango dena izan dadila —eta, ze ostia, izan dadila!—. Ez dago erremediorik. Nik ezer ezin dut egin hori aldatzeko.

Tristuraz betetako eguna izan da: goiza familia-rekin eta arratsaldea lagunekin pasatu dut. Agur moduko bat izan da, baina nor agurtu behar

dugun ziur jakin gabe. Gutxi gorabehera erdiak agurtu behar ditugu, baina zer erdi?

Ez dakit nola heldu garen honaino. Ez dakit nola ez den lehenago neurrik hartu. Argi dago honek noizbait eztanda egin behar zuela! Oker ez banago, Txinan haur bakarreko familia-politika ezarri zuten duela urte asko. Hain zaila zen, bada, horrelako zerbait egitea? Ni bezalako norbaitek hau etorriko zela ikusi badu..., nola ez ote dute pertsona adituek ikusi?

Muturreko egoerara heldu gara. Biharkoa, hain izango da gogorra...! Ez dakit zer zoro-amorraturi bururatuko zitzaion ezer ez egitea egokia zela, gauzak bere onera berez bueltatuko zirela. Eta orain begira non gauden.

Lehen aipatu dut, norbere burua kartzelarik oke-rrena izan litekeela. Ohean botata nago eta ezin dut lorik egin. Pentsamenduak potentzia gorenean ditut orain. Uf! Laster gori-gori jarriko zait burua!

Benetan kristorena da biharkoa. Ezin dut sinetsi ere egin. Izerditan nago.

Eta dena konspirazioa bada? Pobreen erdiak desagerrarazi eta mundua gobernatzen jolasten jarraitzeko. Litekeena da. Ez litzateke lehen aldia izango, non gobernuak bere herritarren aurka egi-ten duen.

Hau da, esaten dudana ez da zorakeria, ezta? Gutxi izan dira kasuak historian, non trataera berdina izan duten dirudunek eta dirudun ez direnek. Dirudunek beti dituzte pribilegioak. Eta bihar aterako denaren arabera, aberatsen erdi bat ala bestea

pikutara bidaliko dute? Zaila egiten zait hori pentsatzea, egia esanda.

Ezerk ere ez du zentzurik neure buruan oraintxe bertan. Agian teoria paranoikoa bota berri dut. Edo agian asmatu egingo dut.

Batek daki, denbora izango da testigu.

Uf!!!

Egun osoa lasai eman eta gauean buruak leher-tu egin behar. Zer ordu da? Goizeko ordu biak! Ezin dut lo egin.

Zenbat lagun egongo da, ni bezala, lo egin ezinik? Mila milioika ziur. Ez da harritzekoa, ondo pentsatuz gero, gainera datorkiguna ikusita.

Bakoitia ala bikoitia?

Berdin zait eta inporta zait, oso, zer aterako den. Ezingo nuke erabaki baina ezta emaitzari kasurik egin ez ere. Ni bikoitien taldean nago. Bi aukereta-ko edozein nahi izatea berekoia da, hein batean. Eta nik badakit hori. Eta horregatik ezin dut erabaki.

Uf!!! Izerditan blai nago.

Pi-pi-pi! Pi-pi-pi!

Bihotza atera beharrean daukat! Iratzargailua da. Zer gaizki egin dudan lo! Goizeko hamarrak dira orain. Gosaltzera noa.

Telebistan ez da zozketa ez den beste ezertaz hitz egiten. Nola gustatzen zaien dena *reallity show* horietako bat bihurtzea!

Hau nazka! Ez dut hau ikusi nahi.

Arratsaldeko 6etan jakinaraziko digute emaitza: Bakoitia ala Bikoitia. Uf! Zortzi ordu baino zertxobait gutxiago geratzen da oraindik. Kalera aterako

nintzateke barrua pixka batean erlaxatzeko, baina egun hauetan zoro asko dabil kaletik. Gainera dena itxita dago. Ez, ez, ezin naiz atera, etxean igaro beharko dut goiza.

Musika jarriko dut, betidanik lagundu izan dit horrek denbora erraz pasatzen. *La Polla Recodsen* kanta bat atera da lehena. Aspalditik esana dute *punkiek* etorkizunik ez zegoela, baina horrelako zerbait imajinatzeke gai izango ahal ziren? Ezezkoan nago. Beste garai batzuk ziren gainera.

Ordu bata da jada. Goiz osoa daramat erlojuari begira. Telebistan kontu berdinarekin jarraitzen dute. Astunak dira benetan. Lehengo programa berdina errepikatuta ipiniko balidate, ez nintzateke konturatuko. Denak berdin-berdinak dira eta!

Atzoko ideia buruan darabilt. Benetan aberatsak eta txirook berdin tratatuko ote gaituzte? Arraroa egiten zait. Oso arraroa.

Bazkaritako, hozkailuan dauden soberakinak ditut, ez dut kozinatzen aritu nahi. Bi xerra eta arroz pixka bat. Asetuta geratzeko nahikoa. Lo-kuluxka egingo dut orain. Ez ditut platerak ere garbituko.

Pi-pi-pi! Pi-pi-pi!

Iratzargailua berriro! Seiak bost gutxi. Eskerrak joteko jarri dudana.

Momentua heldu da!

Oraintxe erabakiko da planetaren zer erdi akabatuko den: nortasun agiri bakoitia ala bakoitia dutenekin. Planetak jasan dezakeen lagun kopurua hirukoiztu dugu, eta hori ez da, inondik inola

ere, bideragarria. Irtenbidea da. Baina irtenbide egokia? Ez dut uste. Egoera hau aurreikus zitekeen, ez zegoen honaino heldu beharrik.

Kristoren espektakulua prestatu dute telebistan: bi bola daude eta bakarra aterako da.

Uf!!! Bakoitia ala bikoitia?!

Hil ala bizi?!

Zer da onena?! Dena da txarra.

Pilota bat du eskuan aurkezleak ireki eta...

(...)

Bakoitia ala bikoitia?